

# INFO,

# POLITIKA PUBLIKOAK ALDATU!

## Zerbitzu publikoak

## Zerbitzu publikoetan politikak alda daitezen, apirilaren 18an mobilizatu egingo da LAB

Euskal Herriko zerbitzu publikoen egoera onartezina da, eta, horregatik, politika publikoak aldatzeko helburuarekin, LABek beste sindikatuarekin batera mobilizazioak eta grebak egin ditu azken urtean Ipar Euskal Herrian, Nafarroa Garaian zein EAEn.

ez agintarien borondateagatik. Politika publikoak errotik aldatu behar dira. Euskal Herrian badira baldintzak gure zerbitzu publikoak eta bertako langileon lan-baldintzak guk geuk erabakitze-ko, eta horren alde gogor borrokatu beharra dago.

EAEko egoera zehatzari dagokionez, salatu nahi dugu EAJk erabateko erantzukizuna duela zerbitzu publikoen gainbehera eta privatizazio horretan, EAEko administrazio eta erakunde publiko nagusiak kudeatzen baititu. **Erabiltzaileok eta langileok argi ikusten ditugu egunero ondorioak:** ratio eta langile egitura eskasak, ordutegi neurrigabeak, Madrilgo politikekiko menpekotasuna, erosahalmenaren galera, euskalduntzeko anbizio falta, behin-behinekotasuna, berdintasun plan eskasak, inposizioak, pribatizazioak...

LAB beti egon da borrokan, mobilizazio eta borroka propioetan zein elkarlanean; azken hilabeteetan, gehiengo sindikalarekin eta mugimendu feministarekin batera: zerbitzu publikoak indartzeko, zaintzako langileen publikotasuna aitortzeko, privatizazioak gelditzeko eta publikazioak egiteko, enplegua sortzeko eta egonkortzeko, erosahalmenari eusteko, soldata eta enplegua hemen erabakitze-ko, zerbitzuak eta langileak anbizioz euskalduntzeko, politika feministak adosteko... Betiere, **Euskal Herrian erabakita eta inposiziorik gabe; guztion artean adostuta.**

Nahikoa da! Zerbitzu publikoek oinarrizko zerbitzuak ematen dituzte, eta orain arte gobernuan egon direnek langileon miseria aprobetxatu dute negozioa egiteko; zer esanik ez, erabat pribatizatu dagoen zaintzaren eremuarekin. Egoera okerragoa ez bada eta aurrerapenak egin badira, jendartearen eta langileon borrokek bultzatuta izan da,

Horrela, ikasturte honetan egin dako borroka honetan, zerbitzu publikoetan deituriko hiru greba egunez gain, beste mugarri bat jarriko du LABek, eta apirilaren 18an manifestazio jendetsua egingo du Bilboko kaleetan EAJren eredu neoliberalala salatze-ko eta politika publikoak aldatze-ko exijitzeko.

Langile guztiok  
zaudete bertan parte  
hartzera gonbidatuta,  
eta bertara  
norberaren  
aldarrikapen zehatza  
eramateko deia  
egiten dizuegu.

LABen indarra  
erakutsiko dugu eta  
hauteskunde  
autonomikoen  
ondoren osatuko den  
Jaurlaritza berriari  
politikak erabat  
aldatzeko exijituko  
diogu.

## Apirilak 18

# MANIFESTAZIOA

## 11:30 Bilboko plaza eliptikotik



Banatu ez eraldatu!

